

BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Hasteko, Euskal Herritik zehar salduko doguz gure aplikazioaren lizentzia. Gure salmentak hobetu ahala Espainiatik zehar zabalduko gara.

Gure produktua ikastetxeei zuzenduta dago, gure bezeroak berez ikastetxeak berak izango dira baina aplikazioa ikastetxearen ikasleentzat zuzenduta dago. Alde batetik 8-18 urte bitarteko adinakoak izango dira. Lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta batxilergoko ikasleei zuzenduta egongo da.

Hasieran gure produktua itunpeko ikastolei zuzenduta egongo da. Horren errazoi nagusia bertan ezartzeko erreztasuna da; izan be,askatasun gehiago dabe zerbitzu honek kontratatzerako orduan. Eskola publikoan aldiz zailtasun gehiago izango geunkez, publikoa izatean lehenik eta behin Eusko Jaurlaritzagaz negoziatu beharko geunkelako. Beraz gure produktua ikastola eta itunpeko ikastetxeei zuzenduta egongo da hasiera baten behintzat. Zentru guzti horreek sare desbardinetan sailkatzen diranez, proiektua sareari erakutsiko deusagu zentru erosle gehiago lortzeko. Sareen artean, ikastolen elkarteak, eusko ikastola batza, kristau eskola eta beste hainbat dagoz.

Euskal Herriko ikastetxe guztietara zabaldu gura dogunez, gure ideia 1333 ikastetxetatik, hasieran 5 ikastetxetan saltzea da. Kontuan izanda ikastetxe bakotxean 800 ikasle inguru dagozala, 4000 ikasle inguru eukiko doguz. Ikastetxe guztietatik, %51,25 publikoak dira, %0,95 pribatuak eta azkenik, %47,8 itunpekoak dira. Proiektua ondo badoa eta ikastetxei gustetan bajake, ikastetxe gehiagotara zabalduko gara. Hasieran, itunpeko zentruakaz soilik egingo dogu lan askatasun handiago dabelako hezkuntza arloan. Denpora pasa ahala, ikastola publikoetara be heltzen saiatuko gara.